

ANTZINAKO ERREGIMENEN HERRI BATEN GIZA EKONOMI AZTERKETA: VILLVERDE DE TRUCIOS, 1753 URTEAN

Ernesto Lopez Losa

EHUko Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateko Irakaslea

Oso herri txikia bada ere, eta ekonomi ikuspuntutik garrantzi handirik ez izan arren, lanaren interesa erabilitako iturrian datza. Ensenadaren Katastroa, jakina denez, bakarrik Gaztelako erresuman aurrera eramana izan zen. Nahiz eta Villaverde, geografiaren aldetik, Enkarterrietan kokatu, juridikoki Gaztelaren parte da eta horregatik egin ziren herri horretan Katastroaren ikerketak. Iturri honek ematen duen informazioa oso baliagarria da Villaverdeko giza ekonomi egituraren azterketa sakon bat eta, aldi berean, Enkarterrietako herrien ekonomi konposaketa eta funtzionamendura hurbiltzeko.

In spite of being a small village with little economic relevance the main interest of this paper is in the source upon it is based. The Catastro de *Ensenada* is a fiscal account which was made for the Kingdom of Castilla and not included some countries like Biscay, with different legal frameworks. Although *Villaverde de Trucíos* is located in the Biscay's *Encartaciones*, from a legal point of view belongs to Castilla. So, this study gives us a picture about the Villaverde's economy, which can be extended to the western part of Biscay in the mid-18th Century.

Villaverde de Trucios eta ensenadaren katastroa

“Unica Contribución” proiektuaren helburua, edo Ensenadako Marke-saren nahia, Gaztelako erreinuaren aberastasuna ezagutzea izan zen, helburu argi bat betetzeko asmotan: antzinako zerga-sistema aldatzea eta kontribuzio berri eta orekatu bat sortzea, pertsonen edo edozein erakun-deren sarreren arabera ezarrita. Sistema berri honekin, koroaren fiskali-tatean razionaltasun apur bat bilatzen saiatuko litzateke¹. Horretarako, plan-gintza hori aurrera eramateko, eman behar zen lehen pausua aberastasuna-ren ikerketak bultzatzea izan zen eta helburu hori gauzatzeko, hiru fasetan eraikitako sistema bat antolatu zuen:

1.- Lehenengo fasea herri-mailan kokatzen zen eta han, aldi berean, ikerketak lau esparrutan desberdintzen ziren:

- lehen pausua “Memoriales”-en egintza izan zen. Hauetan, herrian pertsona bakoitzak zer jabetza- edo errenta-mota eta zenbat zituen adierazi behar zuen. Datu pertsonalak ere jartzen ziren.

- Gero, “Memoriales”-ekin Gazte-lako herri eta hiri guztietan bi liburu egin ziren: “Libro Maior de lo Raiz”² eta “Libro Maior de lo Personal” deitutakoak. Bi liburu hauek bina adarrez konposaturik daude, bata “lego”-entzat eta bestea elizgizon-entzat. Bi liburu hauetan “Memoriales”-etako datuak banatu egiten dira. “Libro Maior de lo Raiz”-en jabetza fisiko eta errentei buruzko informazioa batzen da, bai Villaverdeko biztanleenak bai kanpokoenak. Beste liburuak, “Libro Maior de lo Personal”³, Villaverdeko biztanleen datu pertsonalekin osatutako zerrenda bat baino ez da. Han adierazten da, biztanlearen izena eta abizena, adina, bizi den auzoaren izena, kapare den, ezkongabe, ezkondua edo alarguna den, seme-alaben kopurua, hauen sexua eta mutilen kasuan, hemezortzi urte baino gehiago duten ala ez. Azken baldintza hau etxean dituen morroi eta senideen kasuetan ere betetzen da⁴.

- Hurrengo pausua, “Interrogatorio General”-a⁵ betetzea zen. Hasieran, itaunketa honek 40 galdera zituen⁶ eta herriaren datuak osatzen zituen, geografi kokapena, biztanle-kopurua, auzo eta etxeen kopurua emanaz. Era berean, herriaren ekonomi iharduerarik

1. Grupo'73 (1973), 25-27 orr.

2. “Libros Maiores de Lo Raiz”-en erreferentzia hau da: Archivo Histórico Eclesiástico de Vizcaya. TRUCIOS-VILLVERDE, ST^a MARIA. UNICA CONTRIBUCION DE ENSENADA. Libro 22 Valle de Villaverde. Reforma tributaria por la Cédula de Unica Contribución: Relación de propietarios de propiedades. 1753. (Copia de 1758). Sig. Vol I - 10-1. Vol II - 11-1. Vol III - 12-1.

3. Archivo Histórico Provincial de Santander. Padrón de seglares. Año 1753. (Signatura, “Ensenada, leg. 1.028). Padrón de Eclesiásticos. Año 1753. Leg (1027).

4. Ezin dugu ahaztu, “Catastro”-a iturri fiskal bat zela eta Ogasunari interesatzen zitzaiona hemezortzi eta hirurogei urte bitarteko pertsonen kopurua jakitea zela, hauei zerga pertsonalak ezar baitzekizkiekeen. Horregatik, ikerketen prozesuan, Instrukzioak, biztanleen etxeetan zeuden seme, morroi eta senide guztiak seinalatu behar zirela adierazten du. Camarero Bullón (1985), 146-147 orr.

5. Archivo Histórico Provincial de Santander. Respuestas Generales. Año 1753. (Copia de 1758), “Centro de Estudios Montañeses”, leg 74, doc 18. Oraindik aurrera EE.OO.

6. Nahiz eta itaunketa-tipoan galdera-kopurua berrogei izan, kopuru hau aldatzen da herria edo lekuaren arabera; horrela Buitrago-ko Jauregian 33 galderaz konposaturik zegoen, Grupo '73 (1973) p. 12, edo Villaberderen kasua, 41 galderaz. AHPS. EE.OO.

garrantzitsuenak ere adierazten zituen. Azkenean, herriaren eremutik kanpo, azken pausuak ematen ziren. Probintzia guztien herrien datuak biltzen ziren "Mapas y Estados Provinciales" eta "Libro del Maior Hacendado" osatzeko, eta hauekin Koroako "Mapas y Estados Generales" eta "Libros de Maior Hacendado" liburuak betetzen ziren.

Katastroa egiteko biltzen den informazio guzti honek, ikerketarako Katastroak ematen dituen datuak aukera handiak ematen ditu. Orain arte datu hauekin ikerketa askok argia ikusi dute, Gaztelako XVIII. mendea, haiei esker Gaztelako XVIII. mendea Aro Modernoko epealdirik ezagunena dugularik. Baina ezin dugu ahaztu iturri fiskal bat dela, honek suposatzen duen guztiarekin, datuen estalketa, faltsutasun, etab.ekin. Gizatalde pribilegiatuak, askotan, ez dute bere jabetzaz edo errentez datu fidagarriak ematen. Hau, haien ikuspuntua kontutan hartzen badugu, logikoa izango litzateke zeren eta zerga-sistema berri honekin, lehen zituen pribilegioak oso murrizturik geratuko baitziren eta bere sarreraren mailaren arabera ordaindu behar izango liokete Ogasunari.

Katastroak ateratzen dugun irudiak, nahitaez, estatikoa izan behar du. Iturriaren kokapen kronologikoak, 1753. urtea, eta aurreko edota atzeko bezalako ezaugarrien iturri-ezak, analisia egiturazkoa izatea eragiten du, baina ez horregatik, ez nahikoa. Katastroak ematen duen ekonomi irudia, generikoki eta aldaketa eskasekin, XVIII. mende guztira heda liteke.

Iturriaren berezko garrantziaz aparte, Villaverde de Trucios-eko geografi kokapenagatik, Katastroaren garrantzia are handiagoa da. Ezaguna denez, Villaverde, geografikoki Bizkaiko Enkarterrietan kokatu arren, juridikoki Gaztelako Koroaren parte da. Horri lotzen badiogu "Katastroa" bakarrik Gaztelako erreinuan egin zela, Bizkaiko giza ekonomi egitura, konkretuki, Enkarterrietako sozio-ekonomi egiturari buruzko ezaguerara ona lortzeko duen garrantziaz kontura gaitzeko, zeren eta Villaverderentzat ematen digun egoera, gutxi gora-behera, Enkarterrietako beste herrietara hedatu ahal izango baitugu. Gainera, Bizkaian Ensenada-ren Katastroa bezalako beste iturriak ez izateak, erreferentzi puntu garrantzitsu bihurtzen ditu Villaverdeko datuak, Antzinako Erregimenaren amaierako Bizkaiaren historia hobeto ulertzeko alegia.

Populaketa eta populazioa

1. (*)Populaketa

Villaverdeko harana, "Interrogatorio General"-aren arabera lau "quartos"-etan banatzen da, auzo txikiez konposaturik daudenak⁷. Berriz, "Libros de Lo Personal" eta "Libros de Lo Raiz" liburuek, auzokidearen bizilekua adieraztean, auzoaren izena erakusten dute baina, aipatutako "quartos" horiek zein edo zenbat auzoz osatuta dauden jakiteko daturik ez dute ematen. Datu hauen arabera atera daitekeen irudia, populaketaren ikuspuntutik, Kantauri aldeko irudiarekin erlazionatu beharko genuke. Izan ere, populaketaren oinarria eraikin

7. EE.OO., 1.

(*). Biztanle-gune motak.

I. TAULA. AUZO BAKOITZEKO ETXE-KOPURUA 1753. URTEAN

AUZO	ETXE	AUZO	ETXE	AUZO	ETXE
Ahedo	4	Barrio	8	Barvizente	4
Barzenas	1	Cadalso	1	Calle	1
Campo	23	Carrascal	1	Henales	17
La Iglesia	3	La Lastra	3	La Llana	4
La Puente	6	La Serna	1	La Torre	1
Layseca	36	Los Oyos	7	Ludañez	17
Landemo	12	Manzanal	19	Martinete	1
Matanza	10	Mediavilla	12	Mollano	2
Mollinedo	9	Nobal	4	Ortal	5
Palazio	13	Pobedal	15	Retortillo	12
Revilla	3	Solar	4	Valverde	3
Villanueva	29				
GUZTIRA	301				

gutxiz osatutako etxe-multzoak izango lirateke. Haien artean, landalur txikiak banatzen ziren, "llosas" deitzen diren lursail-elkarteak osatuz. Azken finean, García Fernández-ek azaltzen duen bezala, populaketa *laxo* bat aurkituko genuke⁸.

Etxe-kopuruari buruz, Erantzun Orokorrek 193 etxe ematen dizkigute. Haietatik, 150 etxebizitza izango lirateke, 38 ez lirateke bizitzeko prestaturik egongo eta korta edo lastategi bezala erabiliak izango lirateke eta, azkenik, 5 suntsituta egongo lirateke⁹. Erantzun Partikularretan, berriz, informazioa zehatzagoa azaltzen da, auzokide bakoitzak zituen etxe- edo etxe-zatien

kopurua, haien kokapena, ezaugarriak eta erabilpena eskaintzen baitituzte. Honek Villaverdeko etxeen sailkapen on eta zehatzagoa egiten laguntzen digu¹⁰.

Bigarren taulan etxebizitza-kopurua 195era heltzen dela ikusten da. Kopuru hau ez dator bat "Interrogatorio General"-etik irtetzen ziren 155 etxebizitzekin. Villaverdeko familien artean banatzen baditugu, familia bakoitzeko 0'96 etxebizitza ematen digu. Honek adierazten du familia batzuek etxebizitza berbera erdibana dutela, gertaera arrunt bat Kantauriko kostaldean eta etxe-zati bat baino gehiago duen auzokide-kopuru handiarekin bat etor

8. García Fernández (1975), 15 orr.

9. EE.OO., 22.

10. Bigarren taulan erabiltzen ditugun terminoak ikerketak egin zituzten peritoek erabiltzen dituztenak dira. Horrela "vive" edo "havitarse" terminoak, etxebizitza diren eraikinak adierazteko erabiltzen dituzte; "vive" erabiltzen dutenean etxebizitza erabiltzen duena jabea edo jabeen arteko bat dela suposa daiteke. Berriz, beste terminoaren kasuan, badakigu jabea ez dela erabiltzen duena, baina ez digute informaziorik ematen jakiteko ea errentan zegoen.

II TAULA. ETXEEN JABETZAREN EGITURA ETA ERABILPENA¹¹

ERABILPENA	JABETZA BAKARRA	JABETZA BANATUA	GUZTIRA
VIVE	117	39	156
RENTA ¹²	18	16	34
HAVITARSE	13	7	20
NO HAVITARSE	11	9	20
INHAVITABLE	-	1	1
ARRUINADA	1	3	4
DERRUIDA	1	1	2
NO SIRVE PARA HAVITARSE	5	2	7
PAJAR	24	6	30
HORNO	3	3	6
GUARDAR CARRO Y LEÑA	1	-	1
PAJAR Y CERRAR GANADO	1	2	3
PAJAR Y CAVALLERIZA	3	2	5
CAVALLERIZA	4	-	4
CERRAR GANADO	3	-	3
TEJAVANA	1	-	1
FRAGUA	2	-	2
NO UTILIDAD ALGUNA		2	2
GUZTIRA	208	93	301
PORTZENTAIA	69'10	30'90	100

daitekeena.¹³ Geratzen direnen artean, 21, suntsituta egoteagatik abandonaturik daude eta beste 71ren erabilpenak harreman estua dauka herriaren ekonomi egituran nekazaritzak duen nagu-

sitasunarekin zeren eta, bigarren taulan ikus daitekeen bezala, korta, lastategi etab... bezala erabiltzen baitira. Nekazaritzaren beharrak asetzeko, alegia.

11. Peritoek auzokoei etxebizitza bezala adjudikatzen dizkieten artean ("vive" terminoarekin aipatutakoak), bat, gainera, errementaldegi bezala erabiltzen da eta beste bat jabearen errementari lanerako aldapa bat dauka.

12. Errentan dauden eraikinen artean, hiru lastategiak direla aipatzen da; hamasei, bere ezaugarriengatik, lastategiak ere izan litezke, eta besteak etxebizitzak.

13. Pecharromán (1985), 8 orr.

III. TAULA. AUZOKOEN PARTAIDETZA ERAIKINEN JABETZAN.

ERAIKINA	AUZOKIDE	PORTZENTAIA
0	33	16'17
1	171	83'83
2	91	44'60
3	47	23'00
4	17	8'33
5	4	1'96
6	1	0'50

Eraikinen jabetzaren aldetik gauza aipagarri bat azaltzen da: herriko eraikuntzen artean ia heren bat jabetza erdibanatukoak dira, hau da, jabe bat baino gehiago dute. Egoera hau, Gaztelako legislazioak markatzen zuen bezala, heredentziaren banakuntzan oinardeko guztien arteko berdintasunaren ondorio bat izan liteke¹⁴ eta, gainera, posiblea da eraikinen parte bat baino gehiago duten auzokideen portzentaia altuaren azalpena izatea. Beste aldetik, taula berean, etxeko jabeak ez diren 33 familia agertzen direla ikus daiteke; hauek, Erantzun Partikularretan "havitadas" bezala agertzen diren etxebizitzaren eta errentan daudenen hartzaile "posibleak" izan litezke.

Eraikinen tamaina eta barruko banakuntza, salbuespen batzuk aparte, Villaverdeko etxebizitza gehien artean oso antzekoa da. Gela bat, sukaldea, lastategia edota korta, etxebizitza gehienetan elementu orokorrak ziren. Haiei gehi diezaiekegu ogia egiteko labe txiki bat, beste gela bat edo ongarria biltzeko, etab... jabearen errenta-maila handitzen doan arabera agertzen diren eranskin berriak.

Erantzun Orokorrek zein Partikularrek ez digute eraikinen balioari buruzko informaziorik erakusten, baina eraikinen jabeari, urtean zehar, produktutako errenta erreala ematen digu, errentan dauden eraikinen kasuetan, eta teorikoa, gozatzaileria jabea denean. Bi kasuetan, emandako errendimenduak ez du harremanik bere erabilpenarekin, bere ezaugarriekin baizik. Horrela, etxeen urteko errendimenduak bi eta zortzi errealean artean egon ohi dira, bi-lau artekoak gehienak izanik, kasu gehienetan, etxebizitzak ez diren eraikinen eta barruko banakuntza sinpleagoak dituztenak.

2. Populazioa

Villaverde de Trucioso populazioaren ezaugarriak, orohar, biziraupenerako nekazal polikultiboan oinarritutako populazioarenak dira. Lur landuak lursail txiki anitzetan egoteak eta familiari bakoitzari dagokion lursailaren hedadura eskasak frogatzen dute gorago esandakoak. Horrela, populazioa elementu gutxiko famili ereduaren oinarritzen da, lur-saila lantzeko

14. Fernández de Pinedo (1977), 375 orr.

pertsona-kopuru txikiarekin (gizona, emakumea, seme edo morroi batekin) nahikoa den famili ekonomiairen errealitateari egokitzen¹⁵.

Irudi hau Familien liburuetatik ateratako datuekin frogatzen da. Villaverden, datu hauen arabera, familiak, batezbeste, 3,6 pertsonaz osatuta zeuden, Antzinako Erregimeneko familiaren tamaina txikiaz dagoen ustea baieztatuko lukeena eta Iberiar Penintsulako familiaren tamainari hurbilduko litzaiokeena, non lau pertsonaz, batezbeste, osatuta egongo baitzen¹⁶. Villaverden lau pertsonako familiak % 20'19 dira, ugariena izanik, lau edo elementu gutxiagoko familiaren nagusitasunaren egoera baten barruan. Azken finean, bere hornidurarako gaitasun

eskasarekin oso loturik dagoen tamaina txikiko famili eredia aurkezten zaigu; honek, egoera oker zezaketen beste pertsonekin familia handitzea ez bilatzea zuen ondorio. Horrela, morroia familien % 11,8k baino ez duela ikus daiteke. Kasu honetan morroien agerpenak lotura estuagoa izango luke etxeko lanekin harremana zuen egoera konkretu batekin nekazal lanekin baino, (umeen jaiotza, zaharren erretiroa, etab...)¹⁷. Senideen presentziaren arrazoiak, "Familiako Liburuak" ematen dizkigun indizioen arabera, lehen ikusitakoen antzekoak izango lirateke. Presentzia honek ez dio familiari ustiapen-indar gehiago ekartzen, baizik eta adinez nagusiak ez diren lobak edo anai-arrebak, guraso helduak eta lanerako ezgaituak etab... ez dira karga berri bat baino¹⁸.

IV TAULA. ALARGUN ETA FAMILIA NUKLEAR BAKOITZEKO SEME-ALABEN KOPURUA

SEME-ALABAK	EZKONDUAK	ALARGUNAK (GIZONA)	ALARGUNAK (EMAKUMEA)	GUZTIRA
0	31	3	6	40
1	23	4	6	33
2	26	2	8	36
3	11	6	-	17
4	16	-	-	16
5	6	-	1	7
6	4	-	-	4
7	1	-	-	1

15. Lanza García (1988), 130 orr.

16. Flandrin (1979), 83 orr. Lanza ematen dituen datuen arabera, Iberiar Penintsulan, nekazal munduan zein hirietan, familiaren osagaien kopurua gutxi gora-behera, laukoa izango litzateke.

17. Lanza García (1988), 131 orr.

18. "... Ana de Mollinedo vezina de este valle en el barrio de La Lastra, hijadalgo, estado viuda, de oficio labradora tiene en su compañía a sus padres que se hallan imposibilitados en casa y su dicho padre de edad de sesenta y ocho años; también tiene tres hijos menores de los diez y ocho años que los dos se llaman Sebastián y Antonio de Mollinedo y la otra es hija." AHPs. Padrón de seglares. Año 1753, 1-2 orr.

V. TAULA. FAMILIAREN EGITURA ETA OSAKETA 1753. URTEAN

	Kopurua	Seme-alabak	Morroiak	Senideak	Pertsonak	Batezbestekoa
Bakarti	19	-	-	-	19	1
Nuklear	153	282	16	-	568	3'71
Senide elkarte	3	-	-	-	9	3'00
Hedatu	22	40	8	35	114	5'18
Multiple	3	6	1	5	17	5'66
Apaiz famili	3	-	-	4	7	2'33

VI. TAULA. FAMILIAREN TAMAINA ERRENTA-MAILAREN ARABERA

Errenta ¹⁹	Kopurua	% Seme/alabak	Morroia	Senidea	Hektareak	Pertsonak	
< 250	44	21'67	0'80	0'02	0'07	0'03	2'11
250/500	58	28'17	1'36	0'07	0'21	0'50	3'37
500/750	24	11'82	1'71	0'12	0'17	0'90	3'79
1000/1500	22	10'83	2'73	0'18	0'50	1'073	5'22
1500/2000	6	2'95	2'56	1'22	1'11	2'09	5'28
> 2000	3	1'47	1'33	3'00	2'33	3'28	8'00

Ezkontide baten heriotzagatik bikotearen apurketa, familiaren tamainaren murrizketaz aparte, seme-alaben kopuruaren murriztapena zekarren berekin. Horrela, familia nuklear osoek 1'96 seme-alaba, batezbeste, mantentzen zituzten bitartean, alargunez osaturiko etxeek (auzokoen % 21'6a) 1'47 seme-alaben batezbestekoa mantentzen zituzten. Hau gauza batzuen emaitza izan zitekeen: bat, seme-alaben emanzipazioa edo, bi, senar edo emaztearen heriotza goiztiarra, seme-alaba gehiago izateko aukera deuseztatzen zuena. Seme-alabarik gabeko familien portzentaia altua, % 26'4 ere ezin daiteke ahantz.

Lehen azaldutako herriaren ekonomi egituraren ezaugarriek familia barnean lurgintzarako bakarrik behar-beharrezkoak diren pertsonen kopurua izatea eragiten zuten; hori izango da, beharbada, nuklear familia motaren nagusitasunaren arrazoia, % 75'36a, haien artean % 23'5 osagabeak (alargunenak) izanik. Besteak, bakartien (ezkongabekoen) etxeak, % 9'35a; ezkontza-nukleorik gabeko etxeak (anai-alaben elkarteez osaturik), % 1'47a; apaizek osatzen dituzten nukleoak, % 1'47a; eta hedatu eta konposatuak (edo multipleak), %12'31a, izango lirake.

19. Errenta errealetan.

Baina famili motaren arabera egindako sailkapena aparte utziz, tamainari buruzko beste elementu desberdintzaile bat errentaren maila da. Osagaien kopurua auzokidearen errenta-maila goratzen doan bitartean proportzionalki handitzen da; logikoki, zenbat eta errenta handiagoa (kasu gehienetan lur landuen hedadurari oso lotuta dagoena) geroz eta familia handiagoa izateko aukera handiagoa. Gizarte-ikuspuntutik desberdintasunak oso argiak ez izan arren (auzokide gehienak kapareak dira) errenta-mailak eta, berarekin oso lotuta, lanbideak markatzen dute familiaren tamaina.

Lehen taldea, 250 erreale baino gutxiagokoa, funtsean, nekazariak (gizonek zein emakumeek) osatuko lukete, baina, hirurogei urte baino gehiago izateagatik, peritoek ez diete lanaren errendimendurik ematen. Haien artean oso eskasa da bigarren lanbide bat izaten dutenen kopurua eta, orokorrean, haien artean, gehienak ikazkinak dira (lan-egun eta errendimendu txikien lanbidea²⁰). Hala ere, beste ogibide batzuk agertzen dira (oso kopuru txikitik), adibidez, errementari edo zurginen bat; baina azken kasu hauetan, peritoek beste antzeko ogibide bat zuten pertsonen baino errenta txikiagoa estimatzen diete. Talde honetan nekazaritzan aritzen den famili-buru diren emakume-kopuru handi bat ere sartu beharko litzateke.

Bigarren taldekoek, 250/500 erreale bitartekoek, aurreko taldearen antzeko ezaugarriak dituzte; hala ere, hirurogei urte baino gehiago duen nekazarien kopurua, gizon zein emakumezko,

murritzten da. Talde honen barnean, bigarren iharduera piska bat hedatuagoa dago, baina, funtsean, ogibiderik garrantzitsuena, oraindik, ikazkinena da. 500 eta 1000 erreale artean, bigarren iharduera ugariago bihurtzen da (aipagarria da talde honetan % 64'3-ak nekazaritzatik aparte beste ogibide bat garatzen duela) eta ogibide berri batzuk agertzen dira; hots, ikatz-tratalariak, errementari eta zurgin batzuk, olagizonak, eskribanoa, errotariak etab... 1000 errealetik aurrera lehen aipatutako portzentaia % 82'15a handitzen da eta nahiz eta, ikuspuntu koalitatibotik, maila honetan kokatzen direnen artean bigarren ihardueraren mota konparatuz beste taldekoekin desberdintasun handirik ez egon, errentaren desberdintasuna lur-hedadurak markatzen du. 1500 errealetik gorakoen artean, egoera hau argiro azaltzen da; zirujau eta burdinola-arotzaz aparte, beste peritoek ez diete ogibiderik seinalatzeko, bakarrik bere hazienda zaintzeaz arduratzen dira eta azken haien artean funtzionamenduan dagoen burdinola bakarra eta errota handiago eta produktiboagoen jabeak kokatzen dira.

Lehen sektorea

1. Nekazaritza

Aurreko puntuetan, behintzat gainetik, Villaverdeko ekonomi egituraren oinarrizko ezaugarri batzuk aipatu ditugu (eraikuntzen tipologia, erabilpena eta jabetzaren egitura edo famili egitura). Hauek senitartekoen lanean oinarritutako nekazal esplotazio mota batera hurbiltzen gintuzten, bere azken

20. Peritoek ikazkinei lanaren 30 egun eta egun bakoitzeko erreale bateko errendimendua ematen diete.

VII. TAULA. LUR LANDUEN TAMAINA ETA SAILKAPENA

	Partzelak	Peoi-kopurua	Ehunekoak	Balioa (errealetan)	Peoi/partz
1 Kalitatea	937	1077'795	20	19299	1'15
2 Kalitatea	1372	1477'490	28'75	18551	1'05
3 Kalitatea	1254	1588'755	31	12455	1'25
Barazkia	28	44'600	0'86	817	1'60
Ortua	63	29'650	0'57	534	0'50
Natur eria	253	496'600	6'70	-	1'96
Zabarteko eria	30	29'500	0'56	-	0'98
Mendia	14	148'250	2'88	166	10'50
Angioa	26	248'250	4'82	188	9'50
GUZTIRA	3977	5140'310	100	51942	

helburua auto-hornidura lortzea zelarik. Azken finean, bere maila tekniko txikiagatik, buruaskitasuna lortzeko hainbateko lan-intentsitatea behar zuen ezen familia osoaren partaidetzarekin bakarrik lor zezakeen; horrek produktibitate-maila baxua izatea eragiten zuen eta, gainera, gizarte-banaketa konplexuago bat ematea zailtzen zuen, lanesku gutxi gera baitzitekeen nekazal lanetatik aske. Horretaz gain, ikusiko dugunez, gari eta artoaren uztarekin buruaskitasuna lortzeko nahikoa ez zen produkzio-unitate bat aurkitzen dugu²¹.

Landaketen egituraren analisiak irudi hau baieztatzen du; kasu gehienetan, esplotazioen hedadura

txikia (familia bakoitzeko 0'96 hektarea²², mendi-partzelak eta angioak barruan sartuz) familiaren behar minimoak betetzeko ez zen nahikoa²³.

Erantzun Orokorren bitartez berregitura daiteke lur landuen egitura, lehor-lurreko lur landuez, baratzerako ortu txikiez, angioez, mendi-partzelez eta natur edo zabartasunagatik eriez konposaturik legokeena²⁴. Gutxi gora-behera, bi kilometro karratu betetzen dute, Villaverderen azalera osoaren % 4'30 eskas.

Peritoek lur landuak, errendimenduen arabera, hiru klasetan banatzen dituzte; lehen, bigarren eta

21. VV.AA. "La agricultura en Cantabria en el siglo XVIII", Sánchez Gómez (Coor.) (1988), 51-52 orr.

22. Kantauriko kostaldean familia bakoitzeko lur-partzelen tamainua txiki hau orokorra ohi zen (0'9 ha. Cayon-en; 2 ha. Liebana-n, baina "año y vez" sistemarekin) Ibidem, 15 orr.; edo Galizian hektarea eskas bat Buron-en, Saavedra (1979), 41 orr.; edo Eiras Roel-ek Trasdezarentzat esaten duena "ínfima cantidad de 0'83 hectáreas" Rodríguez Ferreriro (1973), 13 orr.

23. B. Barrerirok Asturiasen mendi eta kostaldeko transizio-gunearentzat markatzen dituen arauak jarraitzen baditugu, bakarrik esplotazioen % 5ak, 2 ha. baino handiago, produzituko luke gaineratikoko bat; besteen artean % 77ak ez ziren hektarea batera heltzen eta % 18 1 eta 2 hektarea artean kokatzen ziren.

24. EE.OO., 4

VIII. TAULA . KALITATE BAKOITZEKO PEOI-KOPURUA

	Erantzun orokorra	Erantzun partikularra
1 Kalitatea	1500	1152'00
2 Kalitatea	1500	1477'50
3 Kalitatea	1000	1588'75
Natur eria	200	496'60
Zabarteko eria	300	29'50
Mendia	-	148'25
Angioa	-	248'25
GUZTIRA	4500	5110

hirugarren kalitatean alegia²⁵. Guztiak lehor-lurrekoak dira eta haiei gehi diezaiekegu etxe alboko ortu txiki batzuk eta baratzezko partzela gutxi batzuk, bien produkzioa familiaren kontsumora zuzenduta²⁶; peritoen kalkuluetan, biak lehen kalitateko partzelak bezala kontsideraturik daude. Baina, hala ere, kantitateak zein kalitate artean egindako banakuntzaren datuak Erantzun Partikularretatik ateratako zenbakiekin alderatzen dira.

Kantitateetan agertzen diren desberdintasunez aparte, bi iturriek, Erantzun Orokorrak eta Erantzun Partikularrek, aurkezten duten irudiak ez datoz bat. Erantzun Orokorreran lehen eta bigarren kalitateko lursailen nagusitasuna azaltzen den bitartean, Erantzun Partikularretan alderantzizko irudi bat agertzen da, bigarren eta hirugarren kalitateko lursailen lehentasuna.

Produkzioari buruz, Erantzun Orokorrak garia eta artoa bakarrik biltzen direla erakusten dute²⁷, bata bestearen atzetik landatuak, lugorririk utzi gabe²⁸. Nahiz eta bakarrik bi produktu hauek agertu, beste produktu batzuk landatuko lirakekeela suposa daiteke, adibidez, arbiak animaliak elikatzeko, baina, ditziman sartzen ez direnez, ez dugu bere presentziari ezta produkzio-bolumenari buruzko informaziorik izaten. Urte horretarako gari- eta arto-produkzioarako estimatutako bolumena jakiteko Erantzun Orokorraren ditzimari buruzko infomaziora jo behar dugu²⁹. Erantzun Partikularrek erakusten digutena kalitate altueneko peoi baten batezbesteko errendimendua (errealetan) da. Urte batean (produkzioaren bolumena eta balioa emanaz) garia landatuz peoi batek aterako lukeen errendimendua eta hurrengoan artoa landatuz lortutako errendi-

25. "... A la quinta dijeron que a la especie de tierra que dejan declarado hay de primera, segunda y tercera calidad que es lo mismo que buena, mediana e inferior". EE.OO., 5

26. EE.OO., 4.

27. EE.OO., 11.

28. EE.OO., 4

29. 1753. urteko gari-produkzioa 950 anega eta artoarena 1300 anegakoa izango zela kalkula daiteke. "... A la Dezima sexta dijeron que los referidos diezmos suelen montar un año con otro, según consideran y a su parecer, a noventa y cinco fanegas de trigo y de maíz ciento y treinta..." EE.OO., 15.

IX. TAULA. HERRIAN BIZI EZ DIREN LUR LANDUEN JABEAK

HERRIA	PEOIAK
TURTZIOZ	404'65
ARTZENTALES	199'70
KARRANTZA	12'10
GASTEIZ	14'00
BILBO	6'75
MADRIL	36'50
SOMORROSTRO	396'75
BALMASEDA	12'25
CARRION DE LOS CONDES	109'50
GUZTIRA	1192'25

menduaren artean zatiketa eginez ateratzen da datu hori. Datu hauekin Villaverden garia eta artoaren ale bakoitzeko lortzen diren errendimenduak ere atera daitezke; horrela, peoi bat urte batean gariaren "lakari" batekin landatzen dela eta hurrengo urtean artoaren erdi "lakari" batekin landatuko litzatekeela jakinda³⁰, lehen mailako lurrak gariarentzat 1/9 eta artoarentzat 1/28-ko batezbesteko errendimendua emango lukete, bigarren kalitatekoak, 16/ eta 1/10, eta hirugarren kalitatekoak 1/4 eta 1/7³¹. Anega bat gariaren balioa ezagutuz, 24 erreal, eta artoarena, 16 erreal, peoi bakoitzaren gari eta artoaren arteko batezbesteko errendimendua, errealetan, kalkulatzeko dute peritoek: horrela, urteko lehen

kalitateko peoi batena 18 erreal eta 11 maravedi izango lirateke, bigarren mailako peoi baten errendimendua 12 erreal eta 22'5 maravedikoa eta hirugarren kalitatekoen errendimendua 8 erreal eta 22'5 maravedikoa. Modu berberan, angio eta mendi-partzelentzat (egur-ikatzak produzitzeko erabiltzen direnak) urteko errendimendu hauek ematen dute: 25'5 maravedi angio-partzeletan eta erreal bat eta 5 maravedi mendiko lur sailetan.

Villaverdeko nekazal paisajearen ezaugarririk garrantzitsuenetarikoa bat lur landuen banaketa da, lursail txikietan da; partzela bakoitzeko batezbesteko hedadura 1'3 peoi = 0'05 hektarea izanik. Auzokide bakoitzeko partzela eta peoien

30. EE.OO., 9.

31. Artoaren ale bakoitzeko ikusitako errendimenduak Kantabrian XVIII. mendean lortzen ziren errendimenduei (gutxi gora-behera hektarea bategatik 228 hektolitro lehen kalitateko lurretan eta 14 bigarren kalitatekoetan) hurbiltzen zaizkie. VV.AA. "La agricultura en Cantabria..." Sánchez Gómez (Coor.) (1988), 53. orr. eta, Fernández de Pinedok lehen mailako lurrentzat estimatutako errendimenduari ere bai (1/24). Gariarentzat, egile berak ematen dituen datuak, 1/10 eta 1/14-16, baita Villaverden lehen mailako lurren batezbesteko errendimenduaren antzekoak dira. Fernández de Pinedo (1974), 213 orr.

batezbestekoa 19'59 partzela eta 25'32 peoietan (0'96 hektarea) kokatzen da. Lur landuen partzelen tamaina, gutxi gora-behera, uniforme da, ortu-partzelen 0'5 peoi eta mendi eta angioetan ematen diren 10'5 eta 9'5 peoien salbuespena aparte utzita, desberdintasunaren arrazoia, azken bi kasuetan, bere produkzio bereziari loturik egongo litzatekeelarik. Datu hauek lur landuen hedadura osoa Villaverdeko 203 familien arteko zatiketarik ateratzen dugu; baina, hala ere, hauek ez dira nekazal jabetzak dituzten bakarrak zeren eta, erantzun Partikularretako datuen arabera, lur landuen % 23'19 beste herrietako auzokideen eskuetan dagoela ikus baitaiteke.

Horregatik, nekazal esplotazioen hedadurari buruz egindako kalkuluak ez dira zehatzak. Kanpotarren jabetzak kenduz, esplotazioaren batezbestekoa 0'79 hektareara murriztuko litzateke. Dena den, eta kanpotarren jabetzak izan arren, kalkuluetan sartu ditugu zeren eta lursail hauek herritarrek beste ondoko herrietan izango lituzketenak konpentsatuko zituzten. Desberdina da hirietan edo beste herri urrunagoetan bizi ziren jabeen lurren kasua. Kasu hauetan, beraiek ez lituzketela landuko suposa daiteke, eta Erantzun Partikularren arabera ikus daiteke abandonaturik edo landu gabe ez

daudela. Honek, alokatuak edo errentan egongo zirela pentsarazten digu. Eta hau da, edo hemen aurkitzen dugu, nekazal egituraren azterketaren arazorik larriena. Badakigu Katastroaren ikerketetan, sarritan, nekazariak errentan dituzten lursailak deklaratzeko ez dituztena³², baina badaudela jakin daiteke zeren eta lur hauek elizgizon edo eliz erakunde batenak direnean Erantzun Partikularrek hortaz informazioa eskaintzen baitute. Dena dela, partzelen bat errentan duen auzokideen kopurua kuantifikaezina izan arren, nahikoa arrunta zela argi eta garbi aurkezten da kontutan hartzen badugu ikerketetan agertzen den lurrik gabeko nekazariak diren auzokiden kopurua, 17 (%8'37) eta lur-hedadura eskasa dutenen kopuru altua, lur alokatu horiek, nonbait, landuko zutenak. Lurra errentan hartuko luketenen kopurua nahikoa altua izango litzateke kontutan hartzen badugu familien % 82a ez zela hektarea batera heltzen. Nahiz eta Katastroa errentan dauden peoien kopurura edo errentarien kopuruei buruz informaziorik ez eman, lehen aipatutako kasuen informazioarekin lur-errentagatik ordaindutako kantitateetara hurbil gaitzezke³³. Horrela, jakiniko zazpi kasuetan errentan jasotako lurrengatik egindako ordainketak espezieetan zein dirutan, errenta produzitutakoaren % 40 eta 46

32. Barreiro Mallón (1988), 43 orr.

33. "... Estas heredades las lleva en renta, la de cinco quartos de peón sita en la Rannera, Andrés Canales, vezino en el varrio de Campos, quién paga en cada un año siete reales y diez maravedís y le quedan de útil ocho reales y diez y ocho maravedís..." Kasu batzuetan, errentaren balioa dirutan emateaz aparte baita erakusten digu espezieetan ordaindutako kopurua ere. "... Estas heredades (hirugarren kalitatezko hiru peoi) las lleva en renta Miguel de Garyta, zirujano, a quién vajados quatro celemines y medio de trigo y otros de maíz que en cada un año paga, le quedan de útil onze reales de vellón." EE.PP. Libro 22, vol. 12-1.

bitartean dago, kasu bat aparte non errentadunak bakarrik %12'5 ordaintzen duen³⁴.

Dena den, daukagun informazioarekin, nahiz eta batzuetan eskasa izan, atera daitekeen irudia hau izango litzateke: Villaverde de Truciosen nekazaritzak ez duela populazioaren behar minimoak betetzen. Gogoratu behar dugu Kantauriko kostaldeko nekazaritza ez dela inoiz buruaskia izan eta beti merkatuetara jo behar izan duela bertako nekazaritzak asetzen ez dituen sortutako beharrak estaltzeko.

Inguru honetan elikagaiak lortzeko beste puntu nabarmen batzuk aipatu behar ditugu, adibidez, fruituak jokaturako papera. Bere garrantziaz EE.PP.ek ematen duten datuen bitartez jabe gaitezke. Guztira 22.132 arbola ziren, gehienak lursailen bazterretan kokatzen zirelarik (19.356, % 87'6) eta gainontzekoak "campo y ejidos reales" deitutako guneeetan. Egurrikatza fabrikatzeko erabiltzen direnak kenduta (13.995, % 63), besteek, elikaduraren aldetik, zituen osagarri garrantzitsu bat suposatu ahal izan zuten, auzokide bakoitzari zegokion arbola-kopurua kontutan hartuz (37'59). Errolda honetan, lehentasuna gaztainondoa da nagusi 6.601 unitateekin. Atzetik, eta nahikoa urrun, sagarrondoak 935 unitateekin, bai jateko bai sagardoa egiteko, gehienak lur landuen bazterretan kokatzen direlarik.

Hedadura eskaseko eta intentsiboki ustiatutako lur landuen aurrean, mendia, larrean eta herri-lurrak esplotazio hedakor baten gune bezala agertzen ziren. Mendia herri-mendia zen. Handik ateratzen zen probetxamendu bakarra etxeak hornitzeko eta ikatzaz burdinolak asetzeko egurra izango litzateke³⁵. Nahiz eta argiago ez adierazi, suposa daiteke egurraz aparte, herri-mendi horietatik beste produktu batzuk aterako ziren, larreak, ezkurak, hosto ustelak ongarrri bezala erabiltzeko etab...³⁶. Horretaz aparte ezin dugu ahaztu mendiak jokaturako papera nekazaritzaren osagarri bezala zeren eta askotan mendia zein herri-lurrak lur landuen azalera handitzeko erabiliak izan baitziren. Villaverde de Truciosko Ordenantzetan, goldaketa hauek kontrolatu nahian, neurri batzuk hartzen ziren (herri-mendian egindakoak hesiez ixteko agindua, lur landuen eta larreen azalera hobeto desberdintzeko alegia; herri-lurretan egindako goldaketak uzteko beharra etab...)

2. Abeltzaintza

Abeltzaintzak betetzen zituen funtzioak, teorikoki, aztertzen ari garena bezalako ekonomi eremuan ugariak eta garrantzi handikoak dira. Abereak, uztan oinarritutako dietan, beharrezko proteinak aportatzen ditu, nahitaezkoa zen nekazaria laguntzeko lurgintza-lanetan eta, gainera, lur landuak ongarrizko zimaurrea ematen

34. "... esta heredad la lleva en renta Pedro de la Serna Barón, vecino del valle, que bajados los quatro reales que por ella paga en cada un año le queda de útil treinta y dos reales y veinte y dos maravedís y medio y los referidos quatro que paga se dize por ellos una misa por las ánimas del purgatorio..." EE.PP. Libro 22, vol 12-1.

35. EE.OO., 6

36. Fernández de Pinedo (1974), 227 orr.

zuen. Eta, honetaz aparte, abereak, antzinako nekazal gizarte baten testuinguruan, beste funtzio garrantzitsu bat jokatzeko zuten, beronen salmentaren bitartez nekazariak dirua lortzeko zuten bide bakarra baitzen³⁷.

Villaverden, nekazaritza intentsiboa eta subsistentziarako polikultiboa nagusiak diren lekuetan bezala, abereak ez dute lugorri ugariak dituen nekazaritza hedakorretan bezalako garrantzia³⁸. Kasu honetan, abereen erabilpenak, abelburuen ernalketa eta haragi edota artilearen hornidurarekin lotura estua du; guzti hau, marko familiar batean. Esandakoa froga daiteke abelburuen kopurua eta auzokideen arteko banaketa eta Villaverden sortzen den errenta gordinen abeltzaintzak duen apor-tazio laburraren bitartez, % 4'5era heltzen ez dena.

Haraneko paisajearen ezaugarri aipatuenetariko bat abereentzako larreen urritasuna da. Erantzun Partikularretan ez da horretaz infor-

maziorik agertzen eta Erantzun Orokorretan bakarrik aipatzen da "... ay algunos pastos que sirven para los ganados del valle y lugares confinantes por ser en esto comunes con ellos sin que se arrienden ..."39. Horrela, mendiak, larreak eta uztaren galtzuak izango dira abereen elikaduraren oinarria. Era berean, haranaren Ordenantzetan, uzta bildu ondoren, galtzuen erabilpen komunalerako eta zeuden larre gutxiak kontserbatzeko arau batzuk ematen dira: adibidez, martxotik urrira arte mendian abereak egon beharra, "ynvernizas" deitutako larreak kontserbatzeko, aipatutako lursail hauek goldatzeko debekua, etab...40.

Abelburu-kopuru eta banaketari buruz, kopuru guztietan, abere handiekiko (behi, mando, zaldiak) abere txikien nagusitasuna (ardi, ahuntzak) ikus daiteke XII. taulan. Abere txikien nagusitasunak harreman estua dauka Villaverdeko paisajearen konposaketarekin, non larreak

X. TAULA. ABELBURU-KOPURUA

MOTA	KOPURUA	PORTZENTAIA
ARDIAK	1303	45'36
AHUNTZAK	909	31'65
ABELETXEI	479	16'66
ZALDI TALDE	99	3'45
TXERRIAK	83	2'88
GUZTIRA	2873	100'00

37. Cordero Torrón, X; Del Arroyo, F.D.G.; Rodríguez Galdo, M. X. (1984), orr. 273-274.

38. Ibidem, 284-285 orr.

39. EE.OO., 4

40. Escarzaga (1927), 189-190 orr.

urriak baitira eta abereren elikadura, bereziki, menditan datzan. Horretaz gain, ahuntzek zein ardiek ez dute arreta handirik behar, elikatzeko errezak izateaz aparte, produktu batzuk eskaintzen dituztelako (esnea, haragia, artilea, etab...) guztiz garrantzitsuak nekazal ekonomiaren ikuspuntutik.

Baina, hala ere, nahiz eta aurreko datuek azpimarratutako joerak ez lituzketen aldatuko, aipatu egin behar da zaldi talde eta abeletxeei

buruz emandako datuak gutxi-etxita daudela. Peritoek ez dute informaziorik eskaintzen zaldi, mando eta idien kopuruei buruz⁴¹, zeren eta hauek emandako errendimendu teorikoa enplegatzen diren ihardueren emaitzetan barneratzen baitute (lurgintzan, garraioetan, etab...). Horregatik ez dugu ezagutzen haien kopurua ezta ustiapen-erak ere⁴². Besteez Erantzun Orokorrek eskaintzen dituzten errendimenduak hauek dira:

XI. TAULA. ABELBURUEN ERRENDIMENDUAK ERANTZUN OROKORREN ARABERA

ABEREA	ERREAL	ABEREA	ERREAL
Vacas de vientre con crías de leche	7	Ovejas con crías de leche	1'5
Novillos hasta el año que se van ha matar o se califican de Bueyes	4'5	Carneros hasta los tres años cuando se matan	1'5
Novillas hasta los cuatro años que pasan	4	Cabras (al año se considera cabra)	1
Yeguas (con cría incluida)	12	Cerdos	3
Potros	9	Potras	7

41. "... Y en punto a los bueyes de labranza, cavallos y mulas que ai que lo tienen sus dueños para su gobierno y zerdos que tienen para su consumo, no les consideran utilidad alguna, ya que los que tratan con algunos cavallos y mulas de las que ay, les regularán en el útil en la pregunta correspondiente..." EE.OO., 20.

42. Ez dakigu haranean zenbat idi egongo ziren. Hala ere, eta arriero eta ikatz-tratarariei buruz Erantzun Orokorrek emandako informazioen bitartez lehenak bost mando eta bigarrenak berrogei eta bost zaldi erabiltzen dituztela badakigu. EE.OO., 32.

XII. TAULA. ABELBURU-MOTAK ETA ESPLOTAZIO-ERA⁴³

ABEREA	AUZOKIDEA			KANPOTARRA			GUZTIRA
	1	2	3	1	2	3	
BEHI	89	57	172	-	115	-	261
BEHI KUME	24	23	48	-	25	-	72
ZEKOR	26	25	52	-	27	-	78
BIGAI	19	15	49	-	34	-	68
ARDI	413	280	520	-	240	-	933
ARDI KUME	167	88	188	-	100	-	355
AHARI	3	4	12	-	8	-	15
AHUNTZ	599	13	61	-	52	-	664
AHUNTZ KUME	233	4	12	-	8	-	245
TXERRI	81	2	2	-	-	-	83
BEHOR	40	4	17	-	13	-	57
BEHOR KUME	8	-	2	-	2	-	10
BEHOKA	7	2	5	-	3	-	12
POTTOKA	18	2	2	-	-	-	20
GUZTIRA	1727	519	1146	-	627	-	2873

Jabetzaren egituraz eta abereen esplotazio-moteei buruz, XII. taulan dugu Villaverden agertzen diren abere-mota bakoitzaren jabetza eta esplotazio-mota desberdinen datuak.

Villaverde de Truciosen abeltzantzaren ezaugarririk garrantzitsuena, mota desberdinetako esplotazio-ereduen arteko bizikidetasuna da, jabetza zuzenaren eta maiztertzaren ereduen arteko bizikidetasuna.

43. 1 esplotazio zuzena
2 Ameterian utzita
3 Ameterian jasota

Tradizionalki kontsideratu egin da nekazalgoak abereen esplotaziora heltzeko erabilitako bidea maiztertza izan zela⁴⁴. Taularen arabera ia abere guztien erdia, % 39'89, maiztertzan esplotatzen dela ikus daiteke. Abere-moten arabera, erdibanatutako esplotazioen (maiztertaren) portzentaiarik handiena abeletxeen artean dugu, % 77. Datu hau harremanetan jar daiteke abeletxe abelburu bakoitzeko kostu handiarekin, abere mota honentzat peritoek emandako urteko errendimenduak adierazten duen bezala. Honek, aldi berean, nekazalgoarentzat, jabetza zuzenean behi edo idi bat izatea oso zaila zela erakusten du. Artabereak bigarren mailan kokatuko lirateke % 55'25 batez eta urrunago txerriak eta ahuntzak oso kopuru txikian, % 8'5 eta % 2'5. Orduan esan daiteke zenbat eta abere-kostu eta -mantenimentu handiagoa izan erdibanatutako esplotazioa ugariagoa zela.

Datu hauek auzokide/familien kopuruarekin erlazionatuz, familien % 11,13ri peritoek, ez jabetzan ezta maiztertzan ere, ez dietela abererik esleitzen ikusten da; haien artean 8, peritoen ikerketen arabera, ez dute lursailik ere. Beharbada, datu hauek harremanetan jarri beharko lirateke pertsona edo familiburu hauek zuten aktibitatearekin; horrela ikusiko genuke talde honen barnean eskribanoa, apaiza, olagizon bat edo sakristaua aurkitzen ditugula. Beste kasuetan, lur-jabetza edo lur-esplotazioa eta abereen jabetza edo ustiapena batzen dira. Horrela, auzokideen % 24'63ak ez du abererik, baina maiztertzan jasotzen du. Haien arteko batek, modu

horretan, abereak jasotzen eta ematen ditu, eta lauk ez dute ganadurik esplotatzen dituzten abelburuak maiztertzan ematen baitituzte. Besteak, %62ak, jabetzan esplotatzen du; haien arteko % 35'46ak "ameterian" (maiztertzan) jasotako abelburuekin konbinatzen ditu eta % 4'40ak, jabetzan eta abelburu batzuk "ameterian" uzten ditu.

Burdinolak eta errotak

1. Errotak

Villaverde de Trucios bezalako leku batean, non nekazaritza, eta konkretuki, zituen produkzioak populazioaren gehiengoaren iharduera osatzen baitzuen, oso arrunta zen herriko ur-korrante guztietatik banatuta errota ugari egotea. Erantzun Orokorren bitartez, hamaika erroten presentzia ezagutzen dugu. Haien artean, lau suntsituta daude eta beste zazpiak funtzionamenduan mantentzen dira. Errota guztientzako peritoek kalkulaturako produkzio osoa 50 anega ogi dira⁴⁵, mila erreal balio luketenak, peritoek emandako balioaz, 24 erreal anegako, kalkulatur.

Haranako errota guztiek ez dute ezaugarri berbera ezta produkzio egitura antzekoa mantentzen. Tipologiaren ikuspuntutik, Erantzun Orokorrek eta Partikularrek ez dute informaziorik jasotzen. Zeharbidez, eta erroteei emandako izenekin, suposa liteke hamaika errota hauen artean, bi "azeñak" izango liratekeela⁴⁶, "rodete" bertikaleko errotak, eta beste

44. Lanza García (1992) 97 orr.

45. EE.OO., 17.

46. "... Otro sobre dicho río que se nombra el de la Aceña de Palacio...", "... Otro de una rueda que se halla sobre el arroyo que se llama de Varvicente que se nombra la Aceña Nueva". EE.OO., 17.

bederatziak “rodete” horizontaleko errotak.

Produkzioari eta jabetza-egiturari buruz dugun informazioa ugariagoa da. XIII. taulan ikus daitekeen bezala, Erantzun Orokorrek eskaintzen dizki-

gute errotaren izena, kokapena, errotari kopurua, lanaldia eta produkzioa anegatan⁴⁷. Gainera, esplotazio egitura eta esplotazio-erak, errentan emandakoak edo esplotazio zuzenekoak ziren ala ez... ere ematen dute.

XIII. TAULA ERROTA-KOPURUA, JABETZAREN EGITURA ETA ERRENDIMENDUAK

Errota	Esplota- zioa	Errotaria	Lanaldia (hilabete)	Produk- zioa (anegak)	Produk- zioa (errealak)	Errenta (anegak)	Errenta (errealak)
La Llana	Errentan	2	4'5	18	359'5	8	160
Layseca	Errentan	1	4'5	11	220	4	85
Henales	Banatua 36 parte 3 jabe	2	4'5	8	160	-	-
Aceña Nueva	Errentan	2	4'5	18	395'5	8	160
Aceña de Palacio	Bakarra	2	2	2	40	-	-
Manzanal	Banatua 8 parte 8 jabe.	1	1	1	20	-	-
Pajares	Banatua 15 parte 17 jabe.	1	1	1	20	-	-
Marrón ⁴⁸	Banatua 32 parte 19 jabe	1	-	-	-	-	-
Várcena	Banatua 11 parte 18 jabe	1	-	-	-	-	-
¿?	Bakarra	1	-	-	-	-	-
¿?	Bakarra	1	-	-	-	-	-

47. Fanegas.

48. Estos cuatro últimos molinos no están en funcionamiento por hallarse “deteriorados” y el llamado “Marrón”, además, por hallarse sin presa. EE.OO., 17.

Lehen aipatutako ezaugarri teknikoengatik taulan dauden errotak bi talde desberdinetan bana daitezke: batean, taularen lehen lau errotak daude, tamaina eta lanaldi handienekoak eta, logikoki, produkzio handiena dutenak. Bigarren taldeko errotak, aipatutakoarekin konparatuz, lanaldi eta produkzio txikiagoa dute eta, batek ezik, errotari bakarria dute.

Jabetzaren egiturari dagokionez, bi taldeen artean desberdintasunak agertzen dira. Lehen taldekoak haranean errenta-maila handiena jasotzen dutenenak dira. Bat ezik, bere jabeak zuzen esplotatzen duena⁴⁹, errentan edo maiztertzan utzita daude eta errenta bezala bi errotari dutenak produkzioaren % 44'5 ordaintzen dute; errotari batekoak, berriz, bakarrik produkzioaren % 36'36 ordaintzen du.

Funtzionamenduan zeuden beste errotak, kasu bat ezik, errotari batekoak ziren eta, ikusita dagoenez, askoz ere lanaldi txikiagoa dute; Erantzun Partikularrek informatzen dute bakarrik neguan lan egiten zutela⁵⁰. Lanaldiaren desberdintzasuna ur-korronteetan datza. Bigarren taldeko errotak erreka batzuen alboan kokatzen dira, lehenak, berriz, Agüera ibaiaren urak erabiltzen dituzte. Jabetzaren egiturari buruz, talde honetako errotak, bat ezik, parte txiki askotan banaturik daude, jabeek erabiltzen dutenak direla adierazten duena.

3. Burdinolak

Burdinolei dagokienez, eta EE.OO.-ek ematen dituzten datuen arabera, badakigu zeuden hiruren artean batek bakarrik funtzionatzen zuela ikerketak egin ziren urtean (1753). Baina badirudi beste batek ere tarteka lan egiten zuela zeren eta burdinolen langileen zerrenda egitean peritoek haien arteko batzuek burdinola horretan lan egiten zutela adierazten baitute⁵¹.

Funtzionatzen zuenak, urtean zehar, bakarrik, hiru hilabete lan egiten zuen burdinolaren gailuak mugitzen duen ur-korrontea eskasa zelako eta bakarrik neguan jasotzen zuen ur-korronte nahikoa. Horretaz gain, peritoek garai batzuetan produkzioa geldiarazten zuen egur-ikatzaren falta ere aipatzen dute⁵². Egur-ikatzaren eskasia, badirudi, nahikoa arrunta zen. Villaverdeko ordenantzetan argi eta garbi adierazten da arazo hau eta neurri zuzenak hartzen dira egur faltaren aurka (izkutuan egurra moztu edo zuhaitzak inausteko debekua, zigor batzuk jarriz, handiagotuko liratekeenak egurra beste herrien auzokide bati ikatza fabrikatzeko salduko balitz etab...)⁵³.

Produkzioari buruz, peritoek seinalatzen dute hiru hilabete horietan burdinolak bostehun kintal lantzen zituela, dirutan bi mila eta bostehun erreal balioko lituzketenak⁵⁴. Burdinola horretan lau pertsonak lan egiten

49. Ibidem

50. Ibidem.

51. EE.OO., 33.

52. EE.OO., 17.

53. Escarzaga (1927), 187-188 orr.

54. EE.OO., 17

zuten (bi urtzaille, tiratzaile edo iyele⁵⁵ bat, eta mutil bat)⁵⁶; gehi, jabeen administratzaile izango litzatekeen arotz bat. Nahiz eta, normalean, alokairuak landutako burdinaren arabera izan⁵⁷, kasu honetan Erantzun Orokorrek ez dute horretaz ezer esaten, iyelearen kasuan izan ezik⁵⁸. Eguneroko alokairuaren eta hiru hilabete horretan ateratako diru guztiaren estimazio bat besterik ez dute eskaintzen.

Burdinola, jabetzaren egiturari dagokionez, 32 “goa” edo “suertetan” banatuta egongo litzateke lau jaberren artean. Jabeek Villaverden errentarik handiena ateratzen zutenak ziren eta azpimarratzekoa da burdinolatik ateratako mozkinen garrantzia haien errenta-mailan zeren eta kasu guztietan errentaren % 40 eta % 50 bitartean suposatzen baitzuen.

Lanbideak

Lanbideei buruzko analisi bat egiterakoan Erantzun Orokorrek zein Partikularrek eskaintzen digutena nekazaritzaren garrantzia azpimarratu baino ez dute egiten. Auzokide guztiak, hamabi ezik eta hauen artean apaizak sartuz, ikerketetan nekazari bezala agertzen dira. Baina, nahiz eta auzokide gehienak nekazariak izan, esan beharra dago nekazalgora ez dela giza talde homogenoa, zeren eta nekazari hutsak, emakumeak, agureak eta nekazaritza beste ogibide batekin

konbinatzen duten pertsona batzuk baitaude. Modu horretan, eta desberdintasun hauek kontutan hartuz, hiru talde desberdinetan bana daitezke:

- lehena, nekazari hutsek osatuko lukete.
- bigarrena, nekazaritzaz aparte beste ogibide batean aritzen direnekin osatuta egongo litzateke. Beste aktibitate bat garatzeak kasu batzuetan baldintzatzen zuen nekazaritzan aritutako denbora; horrela nekazariari peritoek emandako 120 eguneko lanaldi baten aurrean, talde honetako batzuek egun gutxiagoko lanaldia dute (errotariak 45 egun, olagizonak 90 egun etab...)⁵⁹.
- Hirugarren taldean nekazari ez diren auzokideak daude.

Behin ogibideak desberdindu ondoren, Katastroak garatutako aktibitateak edo ogibideak auzokideari emango liokeen errendimendua eskaintzen du. Salbuespen batzuk aparte (adibidez, kirurkilariena, eskribanoarena edo olagizonena), errendimendu edo alokairu-“tipo” bat ematen digu alokairu erreal batekin nahas ezin daitekeena. Aipatutako kasuetan Erantzun Orokorrek eta Partikularrek eskaintzen dizkiguten errendimenduak garatutako ogibidetik jasotakoak dira; baina nekazarien kasuan eskainitakoa estimazio bat besterik ez da jonalariak ez daudelako. Orduan, haiei emandako

55. IYELE, YELE - Tirador. Carrión (1991), 253 orr.

56. Orokorrean hauxe zen burdinoletako langile-kopuru arruntena. Uriarte Ayo (1988), 136 orr.

57. Ibidem, p.136.

58. "... dicho Joaquín Martínez, de ofizio tirador en la expresada ferrería en que se ocupa tres meses y se le paga por el quintal de fierro a ocho cuartos y de dones ciento y veinte reales, consideran le queda de útil en ello al día, quatro reales y diez y seis maravedís, que componen quatrocientos dos reales y doze maravedís." EE.OO., 33.

59. EE.OO., 41.

XIV. TAULA. LANBIDEAK VILLAVERDE DE TRUCIOSen 1753. URTEAN.

Ogibidea	Pertsonak	Lanaldia (egunetan)	Eguneko errendimendua(Rs)	Peoi/erdia	Batezbesteko errenta (pta.)
----------	-----------	------------------------	------------------------------	------------	--------------------------------

Nekazaria	99	120	2'50	15'49	32
-----------	----	-----	------	-------	----

BIGARREN IHARDUERA BATEZ NEKAZARIAK

Errementaria	11	45/180	1/3	20'84	797
Ikazkina	17	60	1	15'88	480
Hargina	1	180	3	36'50	1270
Tratalaria	25				
Zaldi 1	7	30/60	2/2'5		
2 zaldi	8	60	3/3'5		
3 zaldi	10	60	3/5'5		
Harakina					
Tabernaria	2	-	-	6'50	426
Errotaria	3	135	1'5	12'50	760
Jostuna	2	90	3'5	13'62	924
Zapataria	2	180	3	26'50	1237
Zurgina	10	30/180	1/3	19'75	918
Arotza	2	180	7'75	37	1494
Urtzailea	2	180	4'5	0'50	886
Iyelea	1	180	4'5	11'25	1267
Sarjentua	1	-	-	34'25	1671

NEKAZARI EZ DIRENAK

Toberoa	1	-	3,5	-	672
Eskribaua	1	-	-	-	600
Kirurgilaria	1	-	-	-	1639
Kabua	1	-	-	-	666
Ondasunduna	4	-	-	34'75	1413

errendimendu horiek ez dira errealak, ezin daiteke errealtzat hartu, baizik eta alokatuak izatekotan jasoko lukeen soldata kontsideratu egin behar da.

Ondolo taulan adierazten dira Villaverden garatzen diren ogibiderik garantzitsuenak eta haiei peritoek estimatzen dizkieten eguneko eta urteko errendimenduak

Nekazariak: Villaverdeko auzokide gehienak, ikusi dugun bezala, nekazariak ziren. Peritoek estimatutako lanaldia 120 egunekoa zen, lehen aipaturiko kasuak aparte, eta, modu berean, estimatutako eguneko errendimendua 2'5 errealekoa zen, urtean zehar guztira 300 erreal suposatuz⁶⁰, gutxi gora-behera, errendimendu hau Gaztelako erresuman azaltzen zenari

60. Ibidem

hurbilduko litzaiokeelarik⁶¹. Baina lehen ikusi dugun bezala ezin daiteke esan talde homogenoa zenik. Bertan emakumeak, agureak, lur-jabetzarik gabeko eta jabetza handiko auzokideak, beste ogibide bat dutenak etab.. sartzan direlako. Nekazal esplotazioaren hedadurari dagokionez, batezbeste 15'5 peoi zuten eta errenta gordina 375 erreal ingurutik egongo litzateke. Kopuru hau nekazari guztien artean ateratako batezbestekoa da baina egoera apur bat argitzeko aipatu beharra dago emakumeen kasuan (alargunak gehienak) lurraren erabilgarritasuna murrizten dela (14,21 peoi) eta errenta maila beheratzen dela 240 errealeraino. Kasu honetan errentaren beherakada honek arrazoi simple bat du. Gizon eta emakumeen arteko desberdintasunak agertzen dira peritoek ez dietelako emakumeei nekazal lanagatik errendimendurik ematen. Antzeko gauza gertatzen da agureekin, hau da 60 urtetik gorakoekin, zeren eta peritoek, berriro, eta adinagatik, ez baitiete errendimendurik ematen. Horregatik lur-hedaduraren batezbestekoa gainditu arren (17,27 peoi) errentaren aldetik maila behegoan kokatzen dira (321 erreal).

Guzti hauek gehituz, nekazaritzan bakarrik aritzen diren 99 auzokide aurkitzen ditugu. Aipatu behar dugu kopuru honetan familiburu diren auzokideak baino ez daudela. Haiei gehitu behar izango litzaike haien gurasoen edo aitagarreben nekazal esplotazioetan lan egingo luketen 18 urtetik gorako 23 seme, 5 morroi eta 3 suhi⁶². Hala ere, hauekin ez genuke

beteko nekazarien kopuru osoa, zeren eta, nahiz eta ez kontsideratu ezin da ahaztu 18 urte beherako semeak eta emakumeak nekazaritzan arituko liratekeela eta, familiburuak beste ogibide bat lukeen kasuan, hauen aportazioa guztiz garrantzitsua izango litzatekeela.

Argi dagoena, katastroak emandako datuen arabera, bigarren aktibitate baten garapenak ez duela zerikusirik izandako lursailen tamainarekin, ikusiko dugunez, orokorrean, nekazari hutsek baino lur-hedadura handiagoa izaten baitute.

Ikazkinak eta ikatz-tratalariak: ikatz-tratalariak, ikatza garraiatzen aritzen direnak (bereziki haraneko burdinoletara) dira. Hogeitabost dira eta hiru mota desberdin aurkitzen dugu erabilitako zaldien edo mandoen arabera. Ezaugarri honek, bere aldetik, aritutako denbora eta jasotako errendimendua markatzen du. Horrela, zaldi bat erabiltzen dutenak, hilabete bat eta 2-2,5 erreal bitarteko errendimendua duten bitartean bi edo hiru zaldi erabiltzen dutenen lanaldia bi hilabetera luzatzen da eta errendimendua handitzen da, 3 edo 3,5 zaldi bientzakoentzat eta 3-5 erreal bitartean hiru erabiltzen dutenentzat. Batzuk, 16 konkretuki, nekazariak eta tratalariak izateaz aparte, ikazkinak dira⁶³. Lehen aipatu dugu bigarren ogibide batean aritzeak ez zuela suposatzen nekazaritzatik ateratako errenta eznahikoa zenik, alderantziz, normalean hauek nekazari hutsak baino lur-hedadura handiagoa dutela ikus daiteke.

61. Anes (1976), 95 orr.

62. Semeentzat zein suhi edo morroientzat, Erantzun Partikularrek ez dute eguneko errendimendutipo bat ematen, nekazarien kasuan bezala, baizik eta enplegatutako 120 egun horietan aterako luketen errendimendua osoa, 110 erreal.

63. EE.OO., 32.

Tratalarien kasuan ideia hau argi eta garbi azaltzen da hauek nekazarien batezbestekoaren gaintik kokatzen direlako, batezbestekoa 23'78 peikoa zelarik. Ikazkinak, berriz, lanaldi eta errendimendu txikiagoa dute, hilabete bat, eta eguneko erreal bateko errendimendu bat. Orokorrean, ikazkinak nekazari helduak ziren⁶⁴.

Olagizonak: Talde honen barnean, Erantzun Orokorretan zein Partikularretan, burdinolen lanekin zer ikusirik dutenak daude, bertakoak edo kanpoak izan arren. Guztira zortzi pertsona ziren: mutil bat, bi arotz, bi urtzaile, bi iyele eta tobero bat. Hauen artean badaude funtzionamenduan dagoen burdinola bakarraren langileak eta tarteka burdina lantzen zuenaren langileak. Azken hauek, burdinola geldirik dagoenean, beste herrietako burdinoletan lan egiten dutela adierazten dute Erantzun Orokorrek⁶⁵. Azpipuntu honen hasieran aipatu dugu nekazaritzaz aparte beste ogibide bat garatzeak nekazal lanetan enplegatutako denbora baldintzatu ahal zuela. R. Uriarte-ren doktorego-tesian argi geratu zen ikazkintza-garaia eta burdinolelara garraiotze-garaia nekazal aktibitateak handiagoak diren garaian gertatzen zirela⁶⁶ eta burdinolen kasuan, nahiz eta burdinaren produkzioa udazkena eta negua bitartean kokatu, udako hila-beteak erabiltzen zirela hurrengo lanaldirako behar ziren materialak biltzeko⁶⁷. Katastroak ematen digun informazioak irudi hau baieztatzen laguntzen du. Horrela, arotzaz aparte, urtzaileen batezbesteko lur-hedadura bakarrik peoi erdikoa zen, edo tiradorearen kasua, zeinak, gehiago izan arren, 11,25 peoi

zituena, oraindik nekazariarentzat estimatutako zenbatekoaren azpitik (15,49 peoi) kokatzen zena. Izan ere, argi ikusten da, nabarmenki urtzaileen kasuan, burdinolaren lanak ez diela denbora askorik uzten nekazaritzan aritzeko. Peritoek emandako edo estimatutako eguneko errendimenduei buruz aipatu behar den lehen gauza da haraneko altuenak direla; arotzena 7 erreal eta 26 maravedi eta 4'5 erreal urtzaileena.

Agertzen diren beste ogibideak (zurginak, errementariak, jostunak, errotariak, etab...) nekazal lanen osagarriak direnak, lanegunei zein errendimenduei dagokienez parekoak dira ogibide guztietan, gutxienez 45 edo 60 eguneko lanaldia eta gehienez 180 eguneko lanaldi baten bitartean eta 1 eta 3 erreal bitarteko errendimenduan kokatzen direlarik.

Nekazari ez direnen kasuan, kirurgilari, eskribau edo militar baten kasuan, bakarrik ematen da errealetan urte osoan lortutako errendimendua. Kirurgilarien kasuan, berria, zati bat dirutan eta bestea espezieetan jasotzen dutela azpimarratzen da, hau da, anega arto eta garitan.

Ondorio gisa

Ikusitako datu guztien arabera argi eta garbi azaltzen da nekazaritzaren nagsitasuna Villaverdeko ekonomi egituran. Hurrengo taulan Villaverden sortutako errenta gordinaren sektore desberdinen arteko banaketaren datuak eskaintzen dira:

Hala ere, haranean sortzen diren

64. Ibidem

65. EE.OO., 33.

66. Uriarte Ayo (1988), orr. 99.

67. Ibidem. (E. Fernández de Pinedoren hitzaurrea), 5. orr.

XV. TAULA. ERRENTA GORDINA ETA SEKTOREEN ARTEKO BANAKETA

	Auzkidea (Errealak)	Kanpotarra (Errealak)	GUZTIRA (RS)	Ehunekoa
Nekazaritza	46875	9965	56840	44'21
Abeltzaintza	5678	992	6670	5'11
Lan-errentak	59511	1185	60696	47'21
Eraikinak	612	84	696	0'54
Errotak/Burdinolak	2277	1382	3659	2'84
GUZTIRA	114953	13608	128561	100'00

lan-errentak nekazaritzarenak baino handiagoak direla ikusten da taulan. Desberdintasun honen jatorria nekazal lanei emandako errendimendu teorikoen erabilpenean datza. Aipatu dugun bezala, peritoek nekazariei aurrera eramandako nekazal lanengatik errendimendu-tipo bat ematen diete. Baina errendimendu hau ez zen alokairu bat, errendimendu-tipo bat baizik. Orduan, eta aipatutakoak kenduz, nekazaritzaren nagusitasuna argiago azaltzen da (erenta gordinaren % 53,41, lan-errendimenduen % 30'19aren aurre-an). Baina, eta Kantauriko kostaldeko ezaugarriekin bateratuz, ikusi dugun bezala, nekazaritza ez zen nahikoa. Hau da, autosubsistentziako polikultiboan oinarritutako nekazal egitura baten aurrean gaude. Ezaugarri honek baldintzatzen du, aldi berean, famili

egitura. Izan ere, nekazaritzaren ahuleziak Villaverden tamaina txikiko familia eredu bat azaltzea eragiten du.

Giza konposaketari dagokionez, azpimarratu behar dugun lehen gauza desberdintasun handien falta da. Dena den, nahiz eta Villaverde barnean desberdintasun handirik ez izan, azaltzen direnak lur-jabetzak edo gozamenak markatzen ditu. Zenbat eta lur gehiago izan (jabetza zuzenean zein errentan) familia handiagoa izateko gaitasun handiagoa. Familia handiagoa izateak lurra lantzeko laneku gehiago edukitzea suposatzen du. Honek, aldi berean, famili-buruari, nekazaritzaz aparte, beste ogibide bat garatzeko aukera ematen dio, errenta-maila handiagoa lortzeko, agertzen diren giza desberdintasun txiki horien agerpena erabakitzen duena.

Iturriak

ARCHIVO HISTORICO PROVINCIAL DE SANTANDER

- Padrón de eclesiásticos. Año 1753. (Signatura, Ensenada, leg. 1.027).
Padrón de Seglares. Año 1753. (Signatura, Ensenada, leg 1.028).
Respuestas Generales. Año 1753. (Copia de 1758), "Centro de Estudios Montañeses", leg. 74, doc. 18.

ARCHIVO HISTORICO ECLESIASTICO DE VIZCAYA

- Trucíos-Villaverde, Stª Maria, Unica Contribución de Ensenada. Libro 22, Valle de Villaverde. Reforma tributaria por la Cédula de Unica Contribución: Relación de propietarios de propiedades. 1753. (Copia de 1758).
Volumen I (sig. 10-1)
Volumen II (sig. 11-1)
Volumen III (sig. 12-1)

Bibliografía

- Anes, G., (1976): *El Antiguo Régimen: los Borbones*. Alfaguara, Madrid.
(1982): "Tradición rural y cambio en la España del siglo XVIII", en Tedde de Lorca, p. (ed) *La economía española a finales de Antiguo Régimen*. Alianza Editorial. Madrid.
- Barreiro, B., (1978): *La Jurisdicción de Xallas en el siglo XVIII. Población, sociedad y economía*. Universidad de Santiago de Compostela.
(1988), "Agricultura e industria en Asturias en el siglo XVIII." *La industrialización en el norte de España*. Euskal Herriko Unibertsitatea - Ed. Crítica. Bartzelona.
- Camarero Bullon, C., (1985): "El Catastro del Marques de la Ensenada como fuente demográfica: la documentación de nivel local." *Estudios Geográficos*. XLVI. liburukia, 178-179.
- Carrion Arregui, I., (1991): *La siderurgia guipuzcoana en el siglo XVIII*. Caja Guipúzcoa San Sebastián/Euskal Herriko Unibertsitatea, Donostia/Bilbo.
- Cordero Torron, X., Del Arroyo, F.D.G., Rodriguez Galdo, Mª.X., (1984): "La distribución espacial del ganado en Galicia según el Catastro de Ensenada". *Congreso de Historia Rural. Siglos XVI-XIX*. Madrid.
- Escarzaga, E. de., (1927): *Avellaneda y la Junta General de las Encartaciones*. Bilbo.
- Fernandez de Pinedo, E., (1974): *Crecimiento económico y transformaciones sociales en del País Vasco (1100-1850)*. Siglo XXI, Madrid.
(1977): "Actitudes del campesino parcelario propietario ante la usura y el crédito rural" *DINERO Y CREDITO. Actas del Primer Coloquio Internacional de Hl storia Económica*. (Madrid - Villalba - Segovia, 21, 22 y 23 de marzo de 1977). Madrid.
- Flandrin, J.L., (1979): *Orígenes de la Familia moderna*. Crítica, Bartzelona.
- Garcia Fernandez, J., (1975): *Organización del espacio y economía rural en la España atlántica*. Madrid.
- Grupo'73., (1973): *La economía del Antiguo Régimen. El Señorío de Buitrago*. Madrid.

- Lanza García, R., (1988): *Población y familia campesina en el Antiguo Régimen. Liébana siglos XVI-XIX*. Universidad de Cantabria, Santander.
(1992): *Camargo en el siglo XVIII. La economía rural de un valle de Cantabria en el Antiguo Régimen*. Asamblea regional de Cantabria-Ayuntamiento de Camargo.
- Pecharroman del cura, F., (1985): *La sociedad cántabra a finales del Antiguo Régimen: el valle de Guriezo*. Santander.
(1986): "La sociedad cántabra en el siglo XVIII. Sociedad rural." Sanchez Gomez, M.A. (Coor.), *Historia General de Cantabria. Siglos XVIII y XIX. (2)* Tantín, Santander.
Rodríguez Ferreiro, H., (1973): *La tierra de Trasdeza. Una economía rural antigua*. Santiago de Compostela.
- Saavedra, P., (1979): *Economía rural antigua en la montaña lucense. El concejo de Burón*. Santiago de Compostela.
- Uriarte Ayo, R., (1988): *Estructura, desarrollo y crisis de la siderurgia tradicional vizcaina (1700-1849)*. Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.
- VV.AA., (1987): "La agricultura en Cantabria durante el siglo XVIII." Sanchez Gomez, M.A. *Historia General de Cantabria. Cantabria en los siglos XVIII y XIX. Economía y sociedad. (1)*. Tantín, Santander.